

Orbeletan



Jakoba Errekondo

jakoba@bizibartztea.eus

Orbel kontuak ekarri ditudala paperera eta, irakurle batek hosto ihar horiek landarezaleontzat zein onuragarriak diren aipatu zidan; krixtaua zen, eta “bedeinkazio” bat zirela zioen.

“Orbel” hitza iraingarri, zaharraren eta zimurtuaren pareko erabili izan bada ere, bedeinkazioa denik ez dut aitatu nik, baina baliagarria bai, bai horixe! Eta, landare artean lana tamainan izaten den sasoi honetan, orbela probetxutan ezartzera bultzatu nahi zaitut.

Orbela jasotzea da lehen; izan zaitez orbel-biltzaile. Ahalik eta garbien; orbel hutsa bilduz gero, hobe, errazago gobernatuko duzu. Ontzietan, zakuetan edo pardel handi batean lopilatuta, nahi duzun eran bildu eta jaso. Orbel-meta ere aitatzen da batean eta bestean, baina nik sekula ikusi gabea dut metan orbela; pilan bai, bazterrera utzitako arrantza sare larriarekin ederki helduta, hostoak haizeari arrantzatuak izan balira bezala... Zutikako bukoia balitz bezala, hesolatxo batzuekin eta alanbre sarearekin itxituratxo bat egitea ere ez da zaila.

Lurra berdin samarra bada, belarra mozteko makinarekin ere bil daiteke hostaila. Gora samarretik jo belarra, eta,



Orbelari etekin handia atera dakioko. Luarra egiteko, esaterako.

ANGEL MAR

harekin nahasian, hostoak bildu. Hosto hutsa ez izanagatik, ez da, Beñat Sarasolak esaten duen bezala, saguzarraren eguerdiko doministikua.

Orbela gauza ugaritarako erabil daitezke. Landareei azpiak egiteko, adibidez. Hostoa dagoen bezala edo nahi bada txikitua, landareen ipurdian jarri; babes eta ongari izango da. Luarra egiteko ere gai ona da. Nik ezagutzen dudan luarririk onena honela egiten da: orbela eta

ukuilutik atera berri den simaurra bata bestearen gainean jarri arrabeteko geruzetan. Tarteka, harrotu, eta heze eutsi. Luartzea laguntzeko, irakindako asun-mindaz busti. Urtebetean luarra dena beste urtebetez utziz gero, humus edo lur beltz ederra izango da. Lur beltz hori egiteko beste era bat: orbel bustia plastikozko poltsa beltz batean sartu, zulo ugari egin arnasa har dezan eta bazterrean utzi urte eta erdi edo bi urte. ■

IRAKURLEAK GALDEZKA

Galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.eus helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Kaixo Jakoba, zein izan daiteke garairik egokiena intxaurrondoa tokiz aldatzeko? Eta nola? Ioseba Berezibar (Aretxabaleta)

Kaixo Ioseba. Intxaurrondoa (*Juglans regia*) hostaia galitzen du. Soiltsen diren espezie guztiak bezala udazkenean edo neguan aldatu behar da, abenduan hasi eta otsaila

bitartean. Gauza bat bakarra izan kontuan: izotza izateko beldurrik ez dadila izan egun horietan. Landatzeko zuloan lurra harrotu egiten da eta izotz handia badator lurreko tartean barrena sartu eta sustraiak izoztu ditzake.

Nola egin? Landarea ahal den lur guztiarekin mugitu behar da. Ateratzerakoan ahal den eta sustrai kopuru handienari eta ahal bada oso-osorik eutsi. Sustrai handiak mozten badituzu, landareak zaputaldia izateko arriskua izango du eta urte batzuetan agian buelta eman ezinik egongo da. Sustraietako zauri handiak babestu: salda bordeles pixka bat ontzi batean jarri, ur ttanta batzuk erantsi, ondo nahasi eta ore edo pasta antzeko horrekin busti zauriak. Hostaia berria ateratzen hasten denean asun urarekin ureztatzen baduzu alde ederreko indarrean etorriko da.